ELGOIBAR - 1.002. zenb. XXIII urtea - 2016-08-23




# Ailegatu dira

RPS 233/13

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales



20 urtetan zehar, gustura dauden 38.000 paziente baino gehiago
Letra txikirik gabeko aurrekontuak. Informa zaitez!

ONDO PASA JAIETAN!

943 36 63 77

Lasarte - Oria
Ola Kalea, 10

Tolosa
San Frantzisko, 39

Elgoibar
San Bartolome,22


Jai
zoriontsuak!
eaj
pnv
egi



asador ibai-ondo

943 256 028

*Ibai-Ondo erretegia menua*

- Errezebo erreserba handiko urdaiazpikoa
- Etxeko frijituak
- Patea
- Gula eta ganba entsalada epela

Bigarren platera aukeratzeko
- Arkume errea
- Entrekota
- Buztana eta masailak saltsan
- Txipiroiak beren tintan
- Bakailaoa pil-pil eran
- Legatza plantxan edo arrautza-irinetan

- Postrea

**30€**



LANBROA

San Miguel

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

MENU LANBROA 1
- Iberikoak
- Patea
- Frijituak

Bigarrena aukeratzeko
- Azpizuna
- Masailak bere saltsan
- Bakailaoa tomatearekin
- Legatza labean erreta

Ardoa eta freskagarriak

**25€**

MENU LANBROA 2
- Iberikoak
- Frijituak
- Txerri saiheskia erreta
- Postrea

**16€**



USUA kafetegia

943 256 028

USUA MENUA
- Patea
- Urdaiazpikoa
- Frijituak
- Txerri saiheskia
- Postrea

**18€**











## INMA MUGERTZA

### "Honezkero, sei irteera egin ditugu eta jendea liluratuta dago"

Kaixo, Ander! Aste batzuk pasatu dira lerro hauek idatzi genituenetik. Giro goibela eta hezea zen nagusi eta, bapatean, uda iritsi zen eta eguzkia gogor jotzen hasi zen. Ondoren, jaiak han eta hemen, eta hiriburuak toki guztietatik etorritako giriz gainezka, Donostia bereziki. Are gehiago aurten Europako Kultur Hiriburua izanik. Baina, aglomerazioak gustuko ez ditugunontzat izan dugu non aukeratu, izan ere hiriburutzaren programazioak aukera asko eskaini –eta eskaintzen– ditu. Horietako batzuk, gainera, ingurumenarekin eta naturarekin lotuta daude.

Adibide moduan, Ulian eta Jaizkibelen uztail eta abuztuko asteburuetan egiten ari diren geoibilbideak, ni gidari (*http://dss2016.eu/eu/albisteak/itemlist/tag/ibilbidea*). Itsaslabarrok, Europako kostaldea osatzen duten inguruen artean, altxor izugarria osatzen dute. Bertan harri-forma konplexuak, era askotako ekosistemak, paisaia ikusgarriak eta gure herriaren historia dantzaldi gozo batean murgiltzen dira. Victor Hugo bera ere inguruaz maitemindu zen, 1843an Pasaiarekin topo egin zuenean.

Gogoratzen duzu, Ander? Hasieran hasteko irrikitan nengoen, emozionatuta. Beldur nintzen maila nahikoa emateko gai ez nintzen ote izango. Ilusio guztia jarriko nuela esan nizun, partaideek ingurua eta natura hobeto ezagutu zezaten, eta nik disfrutatzen dudan guztia disfrutatu zezaten. Honezkero, sei irteera egin ditugu eta jendea liluratuta dago. Arrakasta beraz. Narrastiek ere badute bere lekutxoa, noski! Eta honen harira, nola doa Sargoateko putzuaren proiektua, Ander? Txoritxo batek esan zidanez, aurrera darrai, ezta? Animo eta gozatu jaiak!





## ANDER IZAGIRRE

### "Beharbada ez gaude natura eta kultura elkarrekin lotuta ikusteaz ohituta"

Aupa, Inma, abuztu amaieran gaude, eta, bai, hilabete baino gehiago igaro da hau guztia idatzi genuenetik. Honezkero, geoibilaldiak begiak itxita gidatzeko gai izateraino ere iritsiko zinen agian. Zalantzan zeunden, ea maila nahikoa emateko gai izango ote zinen. Nik banekien baietz. Ez nuen (eta ez daukat) zure profesionaltasunaren inongo zalantzarik! Eta ibilaldietara animatu diren guztiek ere arrazoi dudala esango dute, ziur. Ezagutza izatea beharrezkoa da, baina erakutsi eta azaldu behar dena norberak bizitzea da garrantzitsuena. Zuk gozatu egiten duzu, harri, harkaitz, formazio… desberdinekin eta gozamen hori transmititu eta kutsatu egiten duzu.

Aipatu duzun bezala, kultur hiriburuaren aitzakian, naturarekin zerikusia duten ekintza desberdinak ere antolatu dira. Zuk gidatutako geoibilaldiez gain, *2016 bidea* dugu beste adibide garbi bat, martxotik urrira bitarte, natura eta kultura uztartuz, 32 etapatan Euskal Herria igarotzen ari den egitasmoa, Elgoibartik ere igaro dena. Beharbada, ez gaude natura eta kultura elkarrekin lotuta ikusteaz ohituta. Baina oso berezia izan daiteke, baso erdian koadro erakusketa bat aurkitu eta bitartean koadro atzean dabilen txoriaren azalpenak entzutea esaterako. Gainera, kultura gustuko izan baina natura ezagutzen ez duen jendeari honekiko interesa pizteko modu apropos bat izan daiteke, baita alderantzizko kasuan ere.

Bukatzeko, gaia aldatuz eta zure galderari erantzunez, Sargoateko putzuaren proiektua, poliki bada ere, aurrera atera ahal izango dela dirudi, bai. Horrela bada, izango duzu aurrerago horren berri. Bitartean, ondo pasa jaiak, Inma!



ANDER SORALUZE

Informatikaria

# Mobila galdu zait!

Lasai, ez da horren larria. Segurtasun kopiak eginak dauzkazunez, informaziorik behintzat ez duzu galduko ;-). Dena den, balio dutenagatik bada ere, web bidez saiatuko gara topatzen.

Zure telefonoak Android sistema eragilea badarabil (Google-en kontu batekin), beste aukera batzuen artean, Android Device Manager erabili dezakegu. Bestalde, gure gailuak MacOS ala iOS badarabil (iPad, iPhone etab.), Applek ere antzerako tresna bat dauka. Kasu honetan *icloud.com*-era joan beharko dugu eta, barruan, *Find my iPhone* aukeratu. Bi zerbitzuok oso antzekoak dira.

Behin sartuta, galdutako aparailua aukeratu eta, zuzenean, berau non dagoen mapan erakusten saiatuko da (nahiz eta beti lortu ez). Honek gutxi gorabehera non dagoen esango digu, baina ez telefonoa ohepean dagoen, autoan etab. Horrekin laguntzeko, telefonoari soinua eginarazteko aukera daukagu, gertu bagaude, aurkitu ahal izateko.

> *"Ea tresna hauekin eta zorte pixka batekin, zure telefono (galdu) berria aurkitzen duzun"*

Aurkitu bitartean, gainera, inork telefonoa erabili ez dezan, berau blokeatzeko aukera daukagu. Bukatzeko, aparatua aurkitzeko esperantza galdu badugu, barruan daukan informazioa borratzeko aukera gelditzen zaigu, lehen bezala, beste inork erabil ez dezan.

Beste aukera bat, edozein sistema eragilerentzat, Google Maps barruan *Timeline* delakoa erabiltzean datza. Honetarako, aurretik, *Timeline* delakoa aktibatuta izan behar dugu. Honekin, Googlek gure (telefonoaren) mugimendu guztiak gordeko ditu, egunero, orduro... Aukera honekin, edozein momentutan gure gailua non egon den ikusteko aukera daukagu, bai oraintxe bertan eta baita iraganeko edozein momentutan ere.

Ea tresna hauekin eta zorte pixka batekin, zure telefono (galdu) berria aurkitzen duzun. Zorte on!

P.D.: *Timeline*-n, zure telefonoa mugitzen ari dela ikusten baduzu, zuzenean bila joatea baino, agian, Poliziari laguntza eskatzea aukera hobea izango da, badaezpada.

BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**
**943 744 112**
**Publizitatea: 943 743 704**
***barren.publi@elgoibarkoizarra.eus***
***barren@elgoibarkoizarra.eus***
***www.barren.eus***

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Oier Narbaiza KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi, Oier Narbaiza HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBARKO UDALA — EUSKARA — elgoibar

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO — Gipuzkoako Foru Aldundia — EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

BARRENek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.eus*

## MINTXETAKO APARKALEKUKO ZUHAITZAK

Elgoibarrek gauza eder asko dauzka, eta horietako bat Mintxetako igerilekuak dira. Uztailean ia egunero joan naiz hara nire alabarekin autoz. Kanpoaldean dugun aparkalekua ere ederra da, baina ederragoa izango litzateke itzal gehiago balu. Saiatzen naiz zuhaitz baten ondoan aparkatzen, saiatzen naiz eguzkiak egingo duen ibilbidea kalkulatzen itzal zatitxo bat lortzeko, baina askotan ezinezkoa da. Ni bezalaxe beste asko ere ibiltzen dira, baina denentzako gerizperik ez eta autoak bero-bero, erretzen…

Elgoibarrek gauza eder asko dauzka, bai, tartean herri guztiko berdeguneak. Bistan da norbaitek lan handia egiten duela urte guztian. Berdeguneen mantenuaz arduratzen direnei eskatu nahi nieke zuhaitzak inausten dituztenean ez ditzatela Mintxetako platanondoak kimatu. Beharbada arrazoi sendoren bat egongo da horiek kimatzeko, baina platanoak kimatu ezean oso-oso handiak egiten dira.

Ederra izango litzateke Mintxetako aparkalekua, udan itzala balu. Zoragarria.

**A.O.I**

## OHARRA

Irailaren 2an jasoko duzue hurrengo alea, jaietako berezia, eta irailaren 8an (eguena) jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ordura arte, ondo pasa jaietan!










ELGOIBAR

# "Pena ematen dit sanbartolomeak ospatzea San Bartolome gabe"

**Elgoibarko San Bartolome Parrokiak jaurtiko du aurten sanbartolomeei hasiera emango dien txupinazoa udaletxeko balkoitik. Edizio hau ixterakoan oraindik erabaki gabe zuten zeinek piztuko zuen txapligua. Begoña Mugertzari egin diogu elkarrizketa. Parrokiari urte asko eman dizkion emakume honek ondo baino hobeto ezagutzen ditu hango gorabeherak. Lehengo eta oraingo jaiei buruz, fededunen ospakizunei buruz eta parrokiaren 300. urteurrenari buruz hitz egin dugu berarekin.**

- OIER NARBAIZA -

## BEGOÑA MUGERTZA San Bartolome Parrokiakoa

**◆ Elgoibarko Parrokiaren bueltan zenbat urte eman dituzu?**

Aurten 45 urte izango dira, Parrokiaren inguruan lanean. Hasi nintzenean Carlos Agirre zegoen parroko, azpeitiarra. Paper batzuk eramatera joan nintzen eta esan zidan: "Zu laguntzeko prest egongo zinateke?". Eta nik: "Bai". Bulegoan lan egiten nuen eta orduan ez zegoen fotokopiagailurik. Multikopistarekin parrokian banatu behar ziren oharrak egiten ikasi nuen. Liturgia mailan niri kantatzea gustatzen zitzaidan, koruan nengoen eta hor hasi nintzen pixka bat, eta gero sartu nintzen katekista.

**◆ Horrela 45 urte...**

Lanetik irten eta iluntzeetan joan... Ofizinan ere egon nintzen erregistroez arduratzen, laguntzen, behar zena. Ekonomia aldetik ere, diru kontuez arduratzen nintzen. Abadeek lehen gauza lagatzen zutena diruena zen: ez zuten nahi diru kontuak eramatea; beste modu batean eramaten ziren lehen. Gero poliki-poliki informatikoki egiten dira kontuak.

Orain dela 26 bat urte, Parrokian lehen harria jausi zenean eta obrak egin behar zirela ikusi zenean, antolatu zuten talde tekniko bat, zer obra egin aztertzeko. Guri esan ziguten, eta eratu genuen beste komisio bat dirua nondik lortu eta zer egin ikusteko. Hor sartu ginen. 300 urteko ospakizun hau hortik hasi zen, Pello Arrieta hor dago eta. Ni obretako taldean nago, liturgian (hor segitzen dut) eta misioetako taldean ere egon nintzen 35 urte edo.

**◆ Zer egiten duzu liturgia alorrean?**

Mezatan lagudu, kantatu eta mezak animatu. Igandeetan, eguneroko mezetan badaude beste hiru emakume. Gu igandeko mezatan edo zapatukoan egoten gara. Monizioak izaten dira, sarrera bezala irakurri eta jendea animatu kantatzen. Hiletak eta gauza horiek... Beti dago zerbait egiteko. Gero Benantziori ere lagundu, bakarrik dago eta.

**◆ Zelan gogoratzen dituzu zure gazte denborako San Bartolome Jaiak? Oso desberdinak ziren?**

Nire gazte denborakoak izaten ziren bakarrik bezpera, San Bartolome Eguna eta Txiki Eguna. Akordatzen naiz etxean nire aita zenari entzunda Baserritarren Eguna polita izaten zela edo konpletua. Baina lau egun horiek ziren, gehiago ez zegoen.

> *"Uste dut Txiki Eguna berreskuratu egin dela berriro, eta poztu egiten naiz"*

Gero hasi zen Jubilatuen Eguna, Jaime Arrese zena alkate zenean. Ni inplikatuta egon nintzen. Nire ahizpa Gloria zen Ongarri elkartearen lehendakaria, lehenengo emakumea izan zen. Jaime Arrese alkatea eta nire ahizpa hor sartuta hasi ginen lehenengo Umeen Eguna antolatzen Ongarriren bidez, eta umeen danborrada egiten zen. Gero, Jubilatuen Egunean, hasi ziren bazkari bat antolatzen. Soziedadeek prestatzen zuten bazkaria eta emakume talde bat lortzen genuen zerbitzeko. Pila bat urtetan ibili ginen. Nik aspaldi laga nuen.

Ni akordatzen naiz jaiak zirela gauza handi bat. Maalan jaiotakoa naiz eta Maalakoak ez ginen etortzen plazara egunero. Gero koskortzen ginenean bai: Bandak jotzen zuen eta dantzara edo zinera joaten ginen. Txupinazorik ez zen; hiruretako kanpaiak, bai. San Bartolome Egunean etorri behar zen udaletxeko argiak ikustera. Arkupeetan eta buelta guztian argiak jartzen zituzten eta hura piztuta ikustea ikusgarria zen! Su artifizialak izaten ziren San Bartolome Egunean, eta Plaza Txikian tiobiboak eta tonbola. Karameleroek edukitzen zituzten sagar gorri batzuk karameloz. Egoten ziren kinkilero batzuk eraztunak erakusten zerrauts artean zituztel: Gran Viako bitxidenda onenean ere halakorik ez zen!

Gero, zezenak. Gure amama zena bizi zen San Bartolome kalean, eta ben-

tanak zeuzkan Plaza Txikira. Tribuna VIP zen hura, zezenak eta ikusteko.

Egun berezi batzuk ziren sanbartolomeak. Txiki Egunean, zezena. Malapeko etxean bizi ginen, baina gure etxeak ez zuen aurrera ematen. Bajatzen ginen lehenengo pisura, Juana zen hango andrea, eta lagatzen zigun balkoian egoten. Handik zezena ikustea niretzat oso inportantea zen. Bestela ez dago sanbartolomerik.

**◆ Eta orain?**

Orain Toletxen bizi naiz, baina San Frantzisko kaletik irteten dira zezenak, ez Maalatik. Zezena ikustea inportantea da niretzat. Txapligoa, ordubatekoa ikusten dut, baina ni hiruretan beti etxean egoten naiz, bentana zabalik ondo entzuteko, eta gero txanpaina. "Gora San Bartolome!". Beti. Oso tradizionalista naiz.

**◆ Hiruretako txupinazoaren zain egoten zara orduan.**

Ordubatekoa kopia bat da. Ez dela ordua diote... baina nik bizi guztian ezagutu dut hiruretan! Gero Salbea, meza nagusia, familiarekin bazkaldu eta Txiki Egunean zezena ikustea gustatzen zait, azala behintzat.

**◆ Lehengo ala oraingo jaiak nahiago?**

Egon ziren urte batzuk niretzat galdu egin zela San Bartolome jaietako muina, baina gero berreskuratu egin da. Adibidez, Txiki Eguna. Ni tradizionala naiz horretan, baina Gazteen Eguna kostatu egin zitzaidan ulertzea: Txiki Eguna egonda beste bat antolatu behar? Orain onartuta daukat eta punto. Uste dut Txiki Eguna berreskuratu egin dela, eta poztu egiten naiz. Egun hori galtzen ikusten genuen, eta oraingo gazteek berreskuratu egin dute.

**◆ Txupinazoa Parrokiako nork botako duen erabaki duzue?**

Orain jakin dugu bota behar dugula. Benantziok ez du botatzea nahi. Eta orain bilera egin beharko dugu erabakitzeko.

**◆ Zer sentitu zenuen txupinazoa botako duzuela jakitean?**

Udala akordatu da Parrokiarekin. Azken urte hauetan badute sentsibilitate pixka bat herrian gertatzen ari denarekin.

**◆ Zer mezu emango zenioke Elgoibarko herriari jaietan?**

Ondo pasatzeko jaiak. Disfrutatzeko eta bakean pasatzeko. Eta "gora San Bartolome!".

**◆ Parrokiak txupinazoa bota ondoren, hiruretakoaren zain geratuko zara aurten?**

Etxera joango naiz gure orduan bazkaltzeko. Txanpaina zabalduko dut eta *punto pelota*.

**◆ Txupinazoa botatzerakoan kontuan hartu elizako erlojua pare bat minutu edo aurreratuta dagoela.**

Pixka bat aurreratuta dago. Digitalizatuta dago eta satelite bidez dabil. Aspaldi minutu bat-bi aurreratuta dagoela ikusi nuen eta orain dela gutxi Benantziori galdetu nion. Eman zidan azalpena, arazo tekniko bat dagoela, ez duela satelitearekin zer ikusirik. Uda pasatu eta gero edo konponduko dute. Igual txupinazoa bota beharko da kanpaiekin batera. Ez ala? Minutu bategatik, gure erlojua aurreratuta badago...

> *"Aita Frantziskok zergatik dauka arrakasta hori? Autentikoa delako. Esaten duena bizi du"*

**◆ Fededunok zelan bizi duzue jaia?**

Nirea esango dizut. Niretzat jaiak poza dira. Mezatara joango naiz, inportantea da eta. Pena ematen dit sanbartolomeak ospatzea San Bartolome gabe. Zer ospatzen dugu? Gure zaharrek santu hori zaindari moduan hartu zuten, apostolu bat. Hori ospatzea inportantea da eta gero beste guztia. Zuk galdetu gazteei: zer gaude ospatzen? Sanbartolomeak. Zer dira? Abuztuko jaiak. Sentidu hori galdu da. Zergatik gaude ospatzen justu sasoi horretan?

**◆ Elgoibarren Udalbatzak parte hartzen du Salbean. Beste herri batzuetan ez da horrelakorik mantentzen.**

Zuk hartzen duzu programa ofiziala eta Elgoibarrek mantentzen du Salbea eta meza nagusia egitarau barruan, beste ekitaldi batzuk bezala. Niretzat hori pozgarria da. Herri batzuetan ere mantentzen dute, eta beste batzuetan galdu egin da. Udalak momentuz mantentzen du. Inportantea da Gabonetan Jesusen jaiotza ospatzea eta inguruan nahi duzuna. Sanbartolomeetan apostolu hori aurrean izatea garrantzitsua da.

**◆ Ospakizun erlijiosoetan parte-hartzaileon adina nahiko altua da, ezta?**

Badaude gazteagoak baina oso gutxi. Baina lehengo elgoibartarra sentitzen denarentzat inportantea izango da.

**◆ Eliza Katolikoak edo Parrokiak zer egin beharko luke bere mezua hobeto zabaltzeko?**

Zaila da. Nik uste dut Elgoibarren nahiko imajin ona duela Elizak. Ez dakit... autentikoa izan behar! Predikazio askorik ez da behar. Kristau sentitzen garenok kristau moduan bizi, eta ez da gutxi. Zailena da. Ebanjelioak esaten du: "Zuen egintzengatik ezagutuko zaituztete". Oraingo aita santuak, Aita Frantziskok, zergatik dauka arrakasta hori? Autentikoa delako. Esaten duena bizi eta ebanjelioa, hori da dena.

**◆ Nola doa urteurreneko ospakizuna?**

Nik uste dut ondo. Pello [Arrieta] izan zen zirikatzailea. Berak zekien data. Orain dela hiru urte edo hasi zen esaten. Beste leku batzuetan egindakoak ikusita, hasi ginen. Urte osoan egingo dugu zerbait. Azaroa eta abendua izango dira potoloenak. Jendeari behintzat 300 urte egin dituela gure Parrokiak sartu zaio buruan.

**◆ Gainera, beste eragile batzuekin ere elkarlanean zabiltzate.**

Oso pozgarria izan da. Gehienetan haiek etorri zaizkigu, lagundu nahi dutela esanez. Beste batzuei esaterakoan, prest. Erabateko laguntza. Udalak erabateko laguntza eman digu. Morkaiko, Txarriduna Hoteleko Imanol, Musika Eskolako Sarasua eta Imanol... eta hor gabiltza, pozik, inpresio onarekin.



# BARREN AZOKA

**ARANTXA ETA MARIAN**
FRUTA-DENDA
Tel.: 943 744 440
Zure fruta eta barazkia dei batean etxean!

**AMAIA**
FRUTA-DENDA
Tel.:635 704 712
Etxeko banaketa, fruta eta barazki freskoak zure etxean!

**PEPI ETA MILA**
FRUTA-DENDA
Tel.: 943 744 295
Etxeko salmenta zuzena!

**MARY**
HARATEGIA
Tel.: 943 743 681
Baserriko okela

**M. ANGELES**
FRUTA-DENDA
Tel.: 605 674 428
680 989 487
Zure etxera banatzen dugu!

## Parte hartu gure hileroko zozketetan!

# Ondo pasa jaiak


BENETAKO BIZITZARAKO
HIPOTEKARIOAK
EURIBOR
+ % 0,85
Lehen urteko ITNa: %1,30.
UTBAldakorra: %1,229*
bankoa
CRÉDIT AGRICOLE


UNCETA
Unceta Taldeak
jai zoriontsuak opa dizkizue
UNCETA
Erreminta industrialen
hornitzaile liderra
SARIKI
METROLOGIA
Metrologia adimendua
fabrikazio prozesuetan
LABMETRO
Kalibrazio laborategia
943 74 40 00
www.unceta.es
943 74 38 08
www.sariki.es
943 74 38 30
www.labmetro.es


ESTUDIOS
ARRILLAGA
Errosario kalea, 15 behea - Elgoibar
Tel.: 943744019 / 605713168
Proiektuak
Erreformak
Gremioen koordinazioa
Obren zerbitzu integrala



## 1970.eko hamarkada

Argazki honek, gutxi gorabehera 40 bat urte izango ditu. Aurpegietan igartzen den pozak eta lepoko zapiak ez dute duda arrastorik lagatzen: Txiki Egunean ateratako irudia da. Tartean, Argentinan bizi den elgoibartar bat ere ikusi dezakegu (Trini Barrutia), sarritan etorri izan dena bere bihotzeko Elgoibarrera. **Goian, ezkerretik eskumara:** Trini Barrutia, Conchita Armendia (†), Maria Angeles Lizundia (†), Tere Alberdi eta Pakita Elortza. **Makurtuta:** Rosa Herrero, Itziar Konde eta Itziar Ajuria.

Enpresetarako Software-an espezializatuak
Softlan
Ondo pasa jaietan!
Albitxuri Industrialdea, 3i
Tel.: 943 748 105
info@softlan.biz
www.softlan.biz

**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**
**☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net**

NORFO S.L.



**Gure garaje komunitatean ibilgailu batek olio orbanak uzten ditu bere lekuan, baina orban horiek garajeko beste zenbait tokitan ere agertzen dira. Jabeak dio garajeko bere lekua baino ez duela zikintzen, hau mugatzen duten marketatik atera gabe.**

**Alboko garajeetako jabeen arabera, orbanek kalte egiten diete ezin direlako kontrolatu, eta koipe eta olio hondakin horiek gune komunetan eta inguruko aparkalekuetan labaintzeko arriskua eragiten dute. Gainera, itxura zikina ematen dio garajeari. Sei hilabetean behin garajea garbitzen duen enpresa bat daukagu kontratatuta eta egoera honekin gutxienez hiru hilabetean behin garbitu beharko litzateke. Horren aurrean zein neurri hartu ditzake komunitateak?**

Ibilgailu jabe baten jarrerak, bereziki egoera txarrean dagoen ibilgailuak arazoak eta kalteak eragiten ditu garajeko gune komunetan. Beraz, legera jo behar da gainontzekoei molestatzen dien jokaerari aurre egiteko.

Legearen arabera, garajeko toki horren jabeak edo erabiltzaileak ezin du egin bertan edo garajeko gainerako guneetan molestatzen duen zein osasunaren kaltekoa, arriskutsua edo legez kanpokoa den ezer Estatutuetan zehaztuta badago. Kasu honetan komunitateko presidenteak, bere zein beste jabe edo erabiltzaileren baten ekimenez, debekatuta dauden ekintza horiek egiten dituenari eskatuko dio jarrera ezegoki horiek albo batera uztea, ohartaraziz hori egin ezean jabeen batzordeak erabakitako beharrezko neurriak hartuko dituela.

***AHOLKUA: Ez dago araudi orokorrik garaje pribatu zein publikoetan aparkatzeko ibilgailuek izan beharreko egoerari buruz. Udal batzuetan baliteke garajeei buruzko ordenantza zehatzak egotea edo ordenantzaren bat egonez gero horrelako egoeretarako hirigintza arauak izan behar lituzkete.***

***ROSA Mª PINTADO:*** *Etxaldeen Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

administradores


*Las Tea Partyren emanaldia izango da zapatuan.*
*Arg.: Xabi Muñiz*

# Parte-hartzearen gunea

**Herritarren parte-hartzea eta jai-giroa uztartzeko asmoz jai egitarau oparoa eskainiko du Maalako Gune Askeak. Batzordeak deia egin die bai elgoibartarrei bai bisitariei Maalako guneko ekitaldietan parte hartu dezaten eta txosnetan ondo pasatu dezaten. Azken batean, desberdinen arteko elkarlana da, herriko eragileen eta norbanakoen artean egindakoa, herritarrentzat. Maalako jai-gunean lekua izango dute musikak eta dantzak, txosnek eta aldarrikapenak, parrandak eta jai-giroak. Parte-hartzerik egon ezean ezinezkoa da hori guztia.**

Herriko eragileek herritar guztientzat prestatutako jaiak eskaini nahi ditu Maalako Jai Batzordeko Gune Askeak. Hori gauzatzeko, jakina, partaidetza bermatzea da garrantzitsuena, bai antolaketari dagokionean, bai jaietako presentziari dagokionean. "Maalako Jai Batzordearen asmoa da irekia izatea, partehartzailea, eta horretan ari gara", adierazi du antolatzaileetako batek

Ahalegin horiek fruitua ematen hasi dira. Gazteen Eguna antolatzeko ardura handiena Elgoibarko Gazte Asanbladak izaten zuen lehen, baina Gaztiak Gera Barren izeneko taldeak hartu dio lekukoa, gazte anitzez osatutako taldeak.

Jaien aurretik herritarren partaidetza landu du Gaztiak Gera Barren lan-taldeak, sare sozialen bidez abian jarritako jaietako kamiseta lehiaketaren bidez. Egunotan ikusiko ditugu Elgoibarko hainbat gazte kamiseta hori jantzita.

### IBAIA GARBITZEN

Jaiak berez martitzen honetan hasi arren (abuztuak 23), Maalako jai-guneko kideek ibaia garbitzeko hitzordua bezperarako antolatua dute. Ibai jaitsierari berriz heldu zitzaionean ekin zioten Deba ibaia garbitzeari. Orain, jaitsierarik antolatu ez arren, ibaia garbitzen jarraitzen dute. Alde batetik, ekarpen hori



egin nahi diote Elgoibarko herriari; bestetik, herritarrak kontzientziatzeko ahalegin pedagogikoa da.

2010ean, estreinako urtean, atera zuten zikinkeria kopururik handiena. "Lehen urtean motor bat ateratzea lortu genuen. Eta ez hori bakarrik, obus bat ere aurkitu genuen eta ertzainek etorri behar izan zuten indargabetzera". Lehen urtean besteko zabor kopururik ez dute orain ateratzen, baina era guztietako zikinkeria jasotzen dute. "Orain ez da hainbesterako, baina jendeak bentanatik botatzen dituen zikinkeriak aurkitzen ditugu", Jai Batzordeko kidearen esanetan. Bizarra egiteko kutxilla mordoa aurkitu izan dituzte edota drenajeetarako erabiltzen diren odol poltsak.



Iazko jaietako garbiketan gazte mordoxka batek parte hartu

zuen. Ondoren, erakusketa bat egin zuten garbiketa nola egin zuten azaltzeko. Aurkitutako algak ere jarri zituzten erakusgai.

Gaur egungo Gaztetxearen hamargarren urteurrena dela eta, Gazte Asanbladak zenbait ekintza iragarri zituen hilaren 22rako.

Aurreko urteetan bezala, txupinazo egunean preso eta iheslarien eskubideen aldeko bazkaria ere antolatu dute. Aurtengo aldarrikapena bereziki Sebas Etxaniz preso elgoibartarraren askatasuna eskatzeko izango da. 72 urte dauzka eta Villabonako kartzelan dago preso, Asturiasen. Legediaren zenbait atalek 70 urtetik gorako pertsonen askatasuna agintzen dute. Bazkalostean, bertaratutakoek euskal abestiak kantatuko dituzte Iñaki Labakarekin batera.

Abestu ez ezik dantza egiteko aukera ere eskainiko dute Maalan jai hauetan. La Jodedera taldearen doinu euskal-kubatarrekin nahi gabe egiten du edozeinek dantza, San Bartolome bezperan gertatuko den moduan. Txiki Eguneko dantzaldia Ondarroako Joxpa taldeak eskainiko du.

## GAZTEEN EGUNA

Gazteen eguneko bazkarian jende askok parte hartzen du. 14:00etan hasiko da bazkaria. Aurtengo erronkan plaentxiarren kontra gogotsu arituko dira elgoibartarrak, batez ere uztailean Soraluzeko Galtzagorriak jai herrikoien aldeko gazte mugimenduak botatako desafioa ahaztu ezinda. “Elgoibartarrok, nazkatu gara zuen inbasiuaz Karakate Soraluze da”, aldarrikatu zuten uztailean sare sozialetan zabaldutako bideo batean. Erronkaren ostean, 19:00ak aldera, jolas kalejirari ekingo diote, Usuatik hasita.

## EGITARAUA

**Abuztuak 23**
- 15:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko bazkaria
- 17:00 Kantaldia Iñaki Labakarekin
- 20:30 La Jodedera

**Abuztuak 25**
- 19:00 Dantzaldia Joxparekin

**Abuztuak 26**
- 12:30 - Bazkariaren antolaketa
- 14:00 - Bazkaria Kalegoen Plazan
- 16:30 - Plaza txukuntzen
- 17:30 - Elgoibar Vs Soraluze (erronka)
- 19:00 - Jolas kalejira. Usuatik hasita

**Abuztuak 27**
- 20:00 DJak
- 01:00 Las Tea Party

**Egunero**
- 23:00 Girotze ekintzen aurkezpena txosnan Gazte Asanbladako txosnan

## ZAPATU GAU ELEKTRONIKOA

Martxosoenak zorioneko daude. Zapatu iluntzean, disko jartzaileek hartuko dute Maalako eszenatokia. Hasieran, Elgoibarko zenbait DJk jarriko dute jendea dantzan. Ondoren, arrakasta handia izaten ari den talde bat: Las Tea Party. Lorea Argaratek dena emango du bihotzean daraman herrian.






*Presoen eskubideen aldeko bazkariko kantaldia goian. Eskuman, Gazte Eguneko bazkarian iaz parte hartu zuen taldea.*


HIZKUNTZ SOLUZIOAK
www.ils.es
IRAILETIK HASITA 2016-2017 KURTSOKO IKASTAROAK
· Maila guztiak.
· Titulu ofizialak.
· Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
· Talde murriztuak, enpresako klaseak.
· Ikastaroak atzerrian.
· Multimedia gela.
· Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.
ils@ils.es
Azkue auzoa (IMH)
Tel.: 943 744 040
Uparitzaga, 12 behea
20870 ELGOIBAR
ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUAK
· Esperientzia zabala duen lan taldea:
- Teknikoa (makina-erreminta).
- Komertziala.
- Nazioarteko proiektuak.
· Goi-teknologiaren erabilera.
· Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.
· Prezio lehiakorrak.
Ondo pasa jaietan!!
Industry Language Services
inglés
francés
alemán
italiano
chino
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES


NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA
ZELETA
BARAZKIAK
ONDO PASA JAIETAN!
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
EUSKAL BASERRI
• Landareen produkzioa
• Laborantza kontrola
• Eskuz eginiko aukeraketa
• Banaketa
• Bertako produktuetan erantzunik gertukoena
Ortutik mahaira!
Kalitatea bermatua!
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com
Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu



# "Gazte Eguna gazte sentitzen diren guztientzat izan beharko litzateke"

## TAMARA MOLINA

### GAZTIAK GERA BARREN EKIMENEKO KIDEA

**Gaztiak Gera Barrren ekimenaren inguruan Elgoibarko gazte kuadrilla guztiak dabiltza. Antolaketaren lan-kargak dakartzan desadostasunak albo batera lagatzeko asmoz, beste lan-sistema bat asmatu dute: zenbait lan-talde sortu dituzte, eta nahi duenak bere ekarpena egiten du lan-taldean. Gazte Eguneko egitaraua prest dute, Ane Gorritik diseinatutako kamisetak prest dituzte, eta kuadrillen bazkarirako 300 lagunentzako dena prest dute. Tamara Molina oso gustura ibili da antolaketa lanetan, jaiotan dena prest izateko.**



**◆ Gazteen Egunerako jai egitarau zabala antolatu duzue. Zer-nolako parte-hartzea espero duzue?**
Antolatutakoa espero dut oso ondo gelditzea, eta jendeak ondo pasatzea. Gustatzen zait gauzak ondo antolatzea, eta gero emaitza on bat ikustea. Uste dut ondo irtengo dela eta espero dut jendeak parte-hartzea.

**◆ Zein izan da aldaketa nabarmenena?**
Lan-taldeak sortu ditugu eta parte hartu nahi duenak parte hartzen du. Aukera denok dugu ondo pasatzeko baina batzuk ez daude lan egiteko prest. Eta modu berri bat asmatu dugu antolatzeko.

**◆ Eta horrekin hobeto funtzionatu duzue?**
Azkenean ez duzu obligazio bat. Zuk hartzen duzu obligazio hori.  Prest bazaude hori egiteko, gustura egingo duzu. Niri asko gustatzen zait antolatzea. Girotze-taldean tokatu zait, talde berria da, Gazte Egunaz aparteko egunak girotzeko. Hori antolatzea gustatu zait.

**◆ Zailtasunik handiena?**
Jendea bilatzea. Jende asko gaude, baina jendeak ez du antolatu nahi. Lan handia du honek. Daudenak nazkatu egin dira urtero gauzak antolatzeaz eta datozen berriek ez dute parte-hartze handirik. Oso harrituta gelditu naiz jendearekin. Azkenean Gazte Asanblada ere sartu da honetan. Hala ere, jende berria hastea garrantzitsua da nire ustez.

**◆ Gazte Eguna nolakoa izatea gustatuko litzaizuke?**
Nagusiekin ere zerbait egin beharko litzateke. Gazteen egin beharrean kuadrillen eguna egin beharko litzateke. Urtero komentatzen da. Gaztea ez da gazte dena, gazte sentitzen dena baizik. Orduan denontzako eguna izan beharko litzateke. Gazteen eguna zabaltzeko prest gaude, denoi, gazte sentitzen diren guztiei. Azkenean plazan ez dira bazkari asko egiten.

Idama
Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a
Estetika-medikuntza tratamenduak
Mikropigmentazioa
Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 026

autocares Revert

Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura
Avd. P. Mugurutza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa
Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 386
autocaresrevert@gmail.com
www.autocaresrevert.com

# "Gure ekarpenen bidez jai batzordea aberastu nahi dugu"



## AITOR LAUZIRIKA

ELGOIBARKO IZARRAKO KIDEA

**Jai batzordearen gonbidapena jaso ondoren, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak erabaki du Maalako jai-gunean parte hartzea. Modu honetan, herriko beste eragile batzuekin elkarlanean herrian eragiteko aukera ona dela uste du. Elkartea modu apalean hasi da batzordean, baina etorkizunera begira ilusioz beteta dago Aitor Lauzirika bazkidea. Elgoibarko Izarrak ere herriarentzako ekarpen garrantzitsuak egin ahal izango dituela uste du.**

◆ **Zein da Maalako jai batzordearen funtzionamendua?**

Parte-hartzailea da eragile ezberdinok hartzen dugulako parte. Bakoitzak bere taldearekin konpartitzen ditu ideia horiek. Talde horretan aritzen diren pertsona guztiek parte hartzen dute jai batzordean, beraien taldean iritzia emanez eta ordezkariak bileretara eramanez. Beraz, guztiek egiten dute Maalako Jai Bartzordea. Ez da teknikari batek egiten duen gauza bat edo dena delakoa.

◆ **Herritarrek zer garrantzi dute?**

Herrikoei tartea egiten saiatzen gara. Aurten, esate baterako, herriko DJak izango ditugu. Horrez gain, gazteen parte-hartzea ziurtatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, haien trebeziak eta doaiak garatzeko.

◆ **Zergatik deitzen zaio Gune Askea?**

Ez delako ezer arautua. Hori bai, jarrera batzuk arautzen dira, eta errespetu falta dagoenean eskuhartzea egoten da.

◆ **Elgoibarko Izarrak Gune Askean parte hartzea erabaki du. Zergatik?**

Gonbidapena egin ziguten eta Zuzendaritza Batzordean baloratu genuen. Gu elkarlanaren alde gaude, eta jaietan ere orain arte izan dugu presentzia mota bat. Ikusten dugu beste presentzia bat erakusteko modua badela. Lehen ere egonda gaude Maalan, txosna jarri genuenean. Modu bat da presentzia edukitzeko kalean, eta elkarlanean jarduteko. Aurten hasi gara nolabait parte hartzen, eta gustatuko litzaiguke poliki-poliki gure ekarpenak egitea. Gure ekarpenen bidez batzordea aberastea gustatuko litzaiguke.

◆ **Jai Batzordearen ateak zabalik daude beste eragile batzuei?**

Jai Batzordearen helburua da irekiagoa eta partehartzaileagoa izatea, eta horretarako eragile eta norbanako desberdin gehiago eta ideia anitzekin josi. Eta ahal bada esparru ezberdinetako jendearekin jardutea gustatuko litzaiguke: kiroletakoak, kulturakoak eta abar. Horrez gain, haien inguruarekin sare aberatsagoa osatu ahal izango litzateke.

DOÑA MERCEDES
San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar
Tel.: 943 742 652
943 742 137
Ondo pasa jaietan!
PAN · EMPANADAS · PIZZAS
DOÑA MERCEDES
OBRADOREA

JAI-ALAI TABERNA
Kalegoen Plaza, 5 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 021
Ondo pasa jaixetan!


IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.
Makina Bereziak
Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net


Ondo pasa jaixak
elgoibarko herri eskola


Gobike
Santa Ana, 12 • ELGOIBAR
Tel. 943 74 00 25
www.gobike-elgoibar.es
2016 denboraldiko
AZKENAK!
%20 - %30 - %50
Ondo pasa jaietan!




Leire Rodriguez de Gabriel elgoibartarraren irudiak irabazi du sanbartolomeetako programaren azalaren lehiaketa, zazpi lehiakidetatik. *Elgoibarko Jaiak 2016* kartel irabazleak jaien muina ederki transmititu du. Bestalde, haurren lehiaketan 11 kartel aurkeztu dira, eta hauexek dira irabazleak: Aritz Vallejo Caballero (11 urte), Eneko Etxaniz Irureta (10 urte), Nahia Baskaran Beristain (7 urte), Elaia Etxaniz Irureta (7 urte), Oihan Goñi Orozko (7 urte) eta Libe Soto Orozko (4 urte).

ESARRI AUTOAK
MARKA GUZTIAK
Olaso, 17
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 741 480
Fax: 943 031 576
Jon: 679 241 623
Anton: 680 356 573
e.mail: esarriauto@gmail.com
ZERBITZUA
HYUNDAI
mazda

ORBE
PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK
Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860
www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com
TOLDOAK ETA PERTSIANAK

Uzuri optika audio
San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 359
Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel.: 943 192 192
Lan taldearen partez
ondo pasa jaiak!

CORDON VILARCHAO
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 578
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoruak ezartzea
Lasadura egur, alumino, P.V.C.
Pintura orokorra

etzak
taberna
San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183
Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, martitzena

**9:00 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**

23 urtez azpiko afizionatu mailakoentzat. Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Helmuga: 12:00etan, Pedro Migel Urruzuno kalean. Sari banaketa: 12:30ean, Kalegoen plazan.



**10:30 JAIEN HASIERA**

San Lazaro Egoitzako eta Eguneko Zentroko gure nagusiei zapi gorria jartzeaz batera.

**13:00 TXUPINAZOA ETA KANPAI JOTZEA**

San Bartolome Parrokiak jaurtiko du.





**Jarraian, KALEJIRA**
Maxutxitxa txarangarekin.

**16:00 - 19:30 KART-AK**
Kalegoen plazan.

**16:00 - 20:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

**16:30 SORPRESA**
Zaharren Biltokian.

**17:30-19:00 ERRALDOIAK, BURUHANDIAK, ETA ZEZEN-ZIKLETAK**
Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.



**19:00 KALEJIRA**
Mauxitxa txarangarekin.

**20:00 SALBEA**
Parrokiako abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokian. Udalbatza Parrokiara bertaratuko da, Udalaren Txistulari Taldeak lagunduta.

**23:00 KONTZERTUA**
Doctor Deseo, Kalegoen plazan.


MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX



Fotodepilazioa egiten dugu
ONDO PASA JAIETAN!
Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

TELLABIDE
ITURGINTZA
Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak
Mendaron zein Elgoibarren ematen dugu zerbitzua
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com
Ondo pasa sanbartolomeetan!



Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO
Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko bizar-xaflak ere sartzen dira, higienearen gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.
Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492
● Etorri ahala atenditzen dugu
● Gazteentzako moda zein klasikoa
● Bizar txukunketak egiten ditugu
● Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako
Kontsultatu hemen informazioa:
www.peluqueriajoseantonio.com















# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, eguaztena

**9:00 DIANA**
Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**



**10:45 HERRIKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udalbatzak parte hartuko du, Udal Musika Bandarekin eta Udal Txistulari Taldearekin batera.

**11:00 MEZA NAGUSIA**
Udalbatzak bertan parte hartuko du. Mezatan, Parrokiako abesbatzak, Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz EDTk parte hartuko dute.

**Jarraian, SOKADANTZA**
Kalegoen plazan.

**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Txomin Mujika Latxak zuzenduta. Kalegoen plazan.
- *Churumbelerias*, pasoboblea (E. Cebrian)
- *Poeta y Aldeano*, obertura (F.V. Suppe)
- *A tribute to Elvis* (J. Christensen)
- *Instant concert* (H. Walters)
- *Erraldoiak*, gaita eta banda. Kalejira, baltsa eta polonesa (Romano-Mujika). Elgoibarko Erraldoi konpartsaren partaidetzarekin.



**16:00-20:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.

**16:00 - 20:30 QUADAK**
Aita Agirre plazan.

**17:30-19:00 ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.



**18:00 PROFESIONALEN ARTEKO ESKU PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako frontoian.

**19:30 KALE-ANTZERKIA**
*Ongi etorri Findemundo* ikuskizuna, Trapu Zaharra taldearen eskutik.

**23:00 DANTZALDIA**
Gozategi taldea, Kalegoen plazan.

# Osasun gida

Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 173/10

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA
RPS 88/15
Elizburu, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567
Astelehenetik ostiralera
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Alta Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Garazi Sampedro Arando
RPS 169/15
ERROSARIO HAGIN KLINIKA
Errosario, 7
Elgoibar
943 743 679

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA
San Roke 10-A, behea B
Floren Cel: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net
Ondo pasa sanbartolomietan!
Berogailuia
Gasa
Gasolioa
Aire egokitua
Altzariak
Mamparak
Osagaiak
Gremioen koordinazioa
Erreformak




# Txiki Eguna

## ABUZTUAK 25, eguena

**7:30 DIANA**
Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA,** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA**
Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkarteen eta Batzokiaren eskutik.

**12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXOAK ETA PONIAK**
Aita Agirre plazan.

**12:30: MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**



**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako Frontoian.

**18:30 ERREKORTE ETA JAUZI LEHIAKETA ZEZENEKIN**
16 urtetik gorako publikoari irekita.

**19:00 KALEJIRA**
Tarumba Percusion taldearen kalejira.

**22:30 MUSIKA**
*Euskal Zumba*, Xaibor DJa.

# Gazteen Eguna

## ABUZTUAK 26, barixakua

**8:00 DIANA**
Herriko dultzaineroekin.

**Jarraian, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin.



**Ondoren, SALDA ETA TXORIZO BANAKETA**
Karakate, Ego-toki, Zubi-ondo, Herri-Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkarteen eta Batzokiaren eskutik.

**12:00 GOITIBEHERA JAITSIERA**
Azkuen (San Roke). Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea. Izen-ematea: irteera tokian. 14 urtetik 18 urtera artekoek gurasoen baimena beharko dute.

**Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

**17:00-19:30 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN BOLAZTATUEKIN**
Aita Agirre plazan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

**22:00 KINTOPEKOEN IDI PROBAK**
Hasiera. Antolatzailea: Sigma Probaleku Herri Kirol Elkartea. Sigmako probalekuan.

**23:00 KONTZERTUA**
Rural Zombies eta En Tol Sarmiento. Maalako Parkean.











Ondo pasa sanbartolomeetan!

PSE-EE PSOE

## Baserritarren Eguna

## ABUZTUAK 27, zapatua

**9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGI-ETORRIA**
Haritz EDTk eta Udal Txistulari Bandak harrera egingo diete Kalebarren plazan.

**Jarraian, KALEJIRA**
Baltzola Anaiekin.

**10:00 EUSKADIKO LIMOUSIN GANADU TXAPELKETA**
Aita Agirre plazan.

**11:00 SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Kalegoen plazan, Sallobente Elkarteak antolatuta.

**11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA**
Kalebarren plazan, Kalamua elkarteak antolatuta.

**12:00 KALEJIRA**
Elgoibarko Kale Kantariek giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin.

**13:00 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kalegoen plazan.

**13:30 BERTSOLARIAK**
Kalebarren plazan.

**Ondoren, SARI BANAKETA**
Gazta lehiaketako sariak banatuko dituzte, Kalebarren plazan.





**17:00 KALEJIRA**
Baltzola Anaiekin.

**18:00 MINTXETA MEMORIALA**
San Bartolomeetako harri-jasotze txapelketa, Kalegoen plazan (euria bada, Ikastolan). Antolatzailea: Kalamua elkartea.

**JARRAIAN, SARI BANAKETA**
Ganadu lehiaketako irabazleei. Kalegoen plazan.



**18:30 ZIRKU-IKUSKIZUNA**
*Letter, eskutitz baten bidaia*, Malascompañias zirku Taldearen eskutik, Kalebarren plazan.

**19:30 HAURRENTZAKO DISKO FESTA**
Jon Urbieta DJa, Kalegoen plazan.

**22:00 KINTOPEKOEN IDI PROBAK**
Sigmako probalekuan.

**23:00 SU ETA MUSIKA KALEJIRA**
*Su A Feu* ikuskizuna, Deabru Beltzak taldeak eskainita. Kalegoen Plazan hasita.

**00:00 DISKO FESTA**
Oihan Vega DJa, Kalegoen plazan.

**00:00-03:30 ALKOHOL TASAREN KONTROLA**
Alkoholemia frogak eta legez, kanpoko substantzien testa eta analisia, Maalan.
























# Jubilatuen Eguna

## ABUZTUAK 28, domeka

**8:00 DIANA**
Herriko dultzaineroekin.

**JARRAIAN, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin King-Kong-etik.

**12:00 HEGALUZE-PARRILLADA**
Kalebarren plazan.



**12:00 MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:30 JUBILATUEN BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian. Bazkaria Eguren Orkestrak girotuko du.

**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Haritz EDTk Udal Txistulari Taldearen laguntzarekin antolatuta, 16 urtetik beherakoentzako. Kalegoen plazan.



**22:30 KOMEDIA MUSIKALA**
Demode Quartet, Kalegoen Plazan.

# Umeen Eguna

## ABUZTUAK 28, domeka

**11:45 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
King-Kongetik Aita Agirre plazaraino.

**Jarraian, HAURRENTZAKO ZEZENTXOAK ETA PONIAK**
Aita Agirre plazan.

**12:30 MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan. Zuhaitz aisialdi taldeak antolatuta. Izen-ematea: ordubete lehenago

**14:00 HAURRENTZAKO HERRI BAZKARIA**
Elizako arkupeetan. 7tik 14 urtera bitartekoentzat. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Freskagarriak eta postreak banatuko dituzte.

**14:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.

**15:30 SLIDEA**
Aita Agirre plazan, euria bada, Sigman.

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kalegoen plazan.

**Jarraian, ERRALDOIAK, BURUHANDIAK ETA ZEZEN-ZIKLETAK**
Mauxitxa txarangarekin batera. Haurrak mozorrotuta joateko eskatu dute.

**19:30 MUSIKA**
Kantu Kolore musika taldea, Kalebarren plazan. Euria bada, Sigman

## ABUZTUAK 29, astelehena

**22:00 KINTOPEKO IDI PROBAK.**
Amaiera. Sigmako probalekuan

## ABUZTUAK 30, martitzena

**19:30 ESKUBALOIA**
Asobal Ligako Senior Mutil taldeen partida: Natur House (Logroño) - Bidasoa (Irun) taldeen artean, Olaizaga kiroldegian. Antolatzailea: Sanlo Eskubaloi Taldea.





TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIAK

elgoibarren bizi
erosi
herriak irabazi !!

• Alire Estetika • Aranburu Bitxidenda
• Arauri Lurrindegia • Burgoa Somoza Arraindegia
• Casa Astigarraga • Lagunak Koltxoidenda
• Doña Mercedes • Ecenarro Merzeria
• Ene Bada • Evoka Shoes • Farma Apraiz
• Federopticos Ikus • Ferpi Modak
• G & M Jantzidenda • Garate Jantzi-Denda
• Garbiñe Estetika • Goiara Drogeria • Hazten
• Ipintza Margoak • Iriondo Altzariak • Iriondo Kirolak
• Irudi Argazkiak • Kala Loradenda • Karkizano
• Klitz • Lanbroa • Leigar Elektragailuak • Lete
• Luvik Oinetakoak • MG Burdindegia
• Moma Jantzidenda • Muruamendiaraz
• Nu-van • Ongi Iturgintza • Ortopedia Itziar Sarasketa
• Patxi Harategia • Pausoak • Pitxintxu
• Sara Jantzidenda • Skandalo Kortse-Denda Lentzeria
• Uzuri Optika • Zazpi Informatika • Zeleta Barazkiak

Ondo pasa jaietan!

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK







Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
*goki@gokierreformak.com*

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

**Fatxadak (Isolamendu termikoa) - Teilatuak - Bainugelak**

**Sukaldeak - Igogailuak - Gremioen koordinakuntza**



**I.T.E.**
**Eraikinen ikuskaritza teknikoak**




**Energia-eraginkortasunaren ziurtagiria**

**www.gokierreformak.net**

**Ondo pasa San Bartolome jaietan!**

EA

Ondo pasa sanbartolomeetan!

PNEUMAX, S. A.

PNEUMAX

Olaso Kalea, 15. eraikina
Pab. 52, 53, 54
20870 Elgoibar (GIPUZKOA)
Tel.: 943 744 144 - 943 744 174
Fax: 943 744 076
pneumax@pneumax.es
www.pneumax.es

aiftop

AENOR ER

IQNet



AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKAKO OSAGAIAK

MILAR

Ondo pasa jaietan!

BIRE

# Kultur eskaintza oparoa



## 'ONGI ETORRI FINDEMUNDO' KALE ANTZERKI IKUSKIZUNA

**Abuztuak 24, San Bartolome Eguna. Kalebarren plazan, 19:30ean.**

Trapu Zaharrak kale antzerki taldeak *Ongi Etorri Findemundo* ikuskizuna eskainiko du. Elgoibarko kaleetan behin baino gehiagotan antzeztu izan duen Mikel Laskurain aktore bergararrak eta Esti Curielek umorez eta egoera surrealistez beteriko antzezlana ekarriko dute oraingoan. *Lluvia* ezizeneko Amaia Lasak bere aura garbitzeko asmoarekin jasan ezinezko dieta gogor bat egin ondoren izugarrizko zorabioa sufritu eta honako errebelazioa azaltzen zaio: munduaren amaierarako 15 egun bakarrik falta dira. Beraz, denborarik galdu gabe bera eta bere amona, ilobak esandakoa sinistu ezinik, estralurtarrek beren ontziekin "aukeratutakoak" jasoko dituzten puntu zehatzaren bila hasiko dira.



## LA JODEDERA, MUSIKA EUSKAL-KUBATARRA

**Abuztuak 23, San Bartolome Bezpera. Maalako parkean, 20:30ean.**

2009. urtean sortuta, Kubako musikariek eta euskaldunek osatzen dute taldea: *Jon Txorromorro*, gitarra jotzailea eta kantaria, *Jomes Bap*, baxu jotzailea, Mandi Cienfuegos, perkusionista eta kantaria eta *Oscar La Habana*, tres kubatarraz arduratzen dena. Guztiak musikaren munduan aritutakoak badira ere, azken proiektu honekin eremu berri batera bidaiatzen dute. Alderdi erreibindikatiboa baztertu gabe, musika sortzeko eta jendeak ondo pasatzeko eta dantza egiteko helburuarekin sortu zuten taldea. Habana zaharreko kaleetako herriko tabernan musika bakarra entzuten da: La Jodedera. Sagardo botilak, ron txupitoak, dantza saltsa eta giro bikaina!



## GOZATEGI TALDEAREKIN DANTZALDIA

**Abuztuak 24, San Bartolome Eguna. Kalegoen plazan, 23:00etan**

Gozategiren trikiti doinuek alaituko dute San Bartolome Eguneko gaua. Gozategik 1995ean atera zuen aurreneko diskoa. Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arreba oriotarrek eta Iñigo Goikoetxea urdiandarrak osatzen zuten taldea. Ainhoak 2006an laga zuen taldea eta Asierri eta Iñigori beste lau musikari batu zaizkie taldera. 20 urtean taldeak eta bere musikak aldaketa asko ezagutu baditu ere, Plaza Handian eskainiko duten dantzaldian ez dira faltako jada klasiko bilakatu diren *Nirekin* edo *Kalanbreak* abestiak.



## TARUMBA PERCUSION TALDEAREN KALEJIRA. Abuztuak 25, Txiki Eguna. 19:00etan

Kalez kale ibiliko da Tarumba Percusion taldea Txiki Eguneko arratsaldean. Errioxako talde honek bederatzi urte daramatza hainbat hiri eta herrietako kaleak eta plazak musikaz eta umorez betetzen. Izan ere, musikaz gainera, kultura desberdinak irudikatzen dituzten koreografia eta dantzekin janzten dituzte euren ikuskizunak. "Perkusio talde bat baino gehiago gara. Gure kalejirak dinamikoak eta indarrez beteak dira eta eszenaratze dibertigarriak egiten saiatzen gara", adierazi dute.



## XAIBOR DJ. Abuztuak 25, Txiki Eguna. Kalegoen plazan, 22:30ean.

2004tik dihardu Xaiborrek (Xabier Totorikaguena Zubiaga) DJ lanetan. Musika jartzeaz gain, euskara sustatzea du helburu gernikar honek bere ikuskizunetan, eta bi orduz jardungo du zeregin horretan. Iaz ere izan zen Elgoibarren, baina ikuskizun berriarekin etorriko da aurten: Euskalzumba. "Zumba delako dantza moderno hori sartu dut ikuskizun berrian euskarara moldatuz, jakina", azaldu du. Hortaz, Txiki Egun arratsaldean Kalegoen plazan aparkatuta egongo da Xaiborrek ikuskizunetarako erabiltzen duen bi pisuko kamioi-eszenatokia.




## RURAL ZOMBIES ETA EN TOL SARMIENTO (ETS)

**Abuztuak 26, Gazte Eguna. Maalako parkean, 23:00etan.**

Zestoako Rural Zombies taldea 2014an sortu zuten eta Julia Urreaga, Manu Rodriguez, Marcos Perez, Luken Etxeberria eta Aratz Etxeberria dira taldekideak. Bi urte pasatxoko ibilbidean, kontzertu ugari eskaini dituzte Euskal Herrian eta hemendik kanpo, eta hainbat jaialditan talde ezagun ugarirekin jotzeko aukera izan dute. Joan den uztailean Bilboko BBK Live jaialdiaren barruan ehunka lagunen aurrean jo zuten, eta kontzertuaren ostean kritika oso onak jaso zituzten. En Tol Sarmiento (ETS), berriz, Arabako Errioxatik datorren taldea da. Euskal Herrian bizi dugun ska-rock edo ska-corearen eztandaren barruan nabarmentzen ari den taldea da. Euren formula ez da berria: alaitasuna eta melodia itsaskorrak, ska erritmo azkarrak, rocka, punka eta kutsu sozial zein politikoa duten letrak.

## 'LETTER' IKUSKIZUNA

**Abuztuak 27, Baserritarren Eguna. Kalebarren plazan, 18:30ean.**

Malas Compañías zirko eta antzerki taldeak *Txatarra* ikuskizuna eskaini zuen iaz Elgoibarko festetan eta *Letter, eskutitz baten bidaia* eskainiko dute aurten. Antzezlan horretan hiru interpreteek, Diego Aimarrek, Mikel Pikazak eta Aritza Rodriguezek, hitzak baztertu egingo dituzte, gezurra badirudi ere, hitzekin lotura handia duen elementu batean, gutunean, zentratuta dagoen istorio bat kontatzeko. Beste mota bateko proposamen eszenikoa da Letter, zirkuaren eta antzerkiaren arteko zerbait, malabarrak ere jasotzen dituena. Denetariko ikusleentzat aproposa den ikuskizuna da..





## DEABRU BELTZAK TALDEAREN KALEJIRA

**Abuztuak 27, Baserritarren Eguna. Kalegoen plazatik hasita, 23:00etan.**

Deabru Beltzak konpainiak Leioako Umore Azokan, maiatzean, estreinatu zuen *Su Á Feu* ikuskizuna eskainiko du Elgoibarko kaleetan. Euskal Herriko konpainia 20. urteurrena ospatzear da, eta orain arte 35 herrialdetan 3.000 emanaldi baino gehiago eskaini ditu. Talde honek festa handian bihurtzen du espazio publikoa. *Su Á Feu* ikuskizunaren oinarriak ere, kale dantza, sua eta erritmoa izango dira, eta etorkizuneko pertsonaiekin nahasiko dira. Perkusioa, argia eta magiak harrapatuko du bete-betean ikuslea.

## LAS TEA PARTY **Abuztuak 27, Baserritarren Eguna. Maalan, 01:00etan.**

Las Tea Party DJ's proiektua 2010ean jaio zen, Eva Gutierrez (La Cuisine) eta Lorea Argarate (Flow) Soraluzeko festetan elkarrekin sesio bat osatzea erabaki zutenean. Hasiera batean Funky-ra eta Electroswing-era bideratutako esperimentua zena, hainbat genero biltzera iritsi da: Electro, Drum n' Bass, Dubstep, Moombahton eta beste hainbat azpigenero, horietatik garrantzi berezia hartzen dute Moombahcore-ak, el Brostep-ak... Lorea Argaratek BARRENi apirilean eskaini zion elkarrizketan aurreratu zuen "familia eta hemengo lagunak aldamenean izan nahi dituela saltoka, eta amama balkoitik begira, Maalan bizi baita...". Gonbidapena egina dago.





## DEMODE QUARTET TALDEAREN KONTZERTUA

**Abuztuak 28, Jubilatuen eta Umeen Eguna. Kalegoen plazan, 22:30ean.**

Iruñeko Demode Quartet laukoteak *Epa!* izeneko disko berria aurkeztuko du Elgoibarren. Talde honen ezaugarri bereizgarriena da *a capella* abesten dutela. Horrez gain, umorea txertatzen dute abestiak interpretatzerakoan. Euskal abestien bertsioez beteriko antzerki ikuskizuna eskaintzen dute zuzenekoetan. Mikel De la Fuente, Iker Huitzi, Joli Pascualena eta David Rosco taldekideen ahotsa grabatutako musikaz edo esku soinuaren musikaz ere uztartuko dute tarte batzuetan.

# "Ona bada, zuzeneko batek ezin zaitzake epel laga"

## FRANCIS DIEZ

### DOCTOR DESEO TALDEKO ABESLARIA

**Doctor Deseok bere ibilbideko 15. diskoa kaleratu du aurten, *Igual y diferente. Una mirada distinta*. Joan den apirilaren 9an hasi zuten disko berria aurkezteko kontzertu-bira Durangon, eta makina bat lekutan jo ondoren, San Bartolome Bezperan joko dute Elgoibarren (23:00etan Kalegoen plazan). Taldeko abeslari Francis Diezek azaldu dizkigu Elgoibarren eskainiko duen kontzertuaren nondik norakoak.**

- ASIER ORBEA -



◆ **Iruñea, Donostia, Gasteiz, Bilbao, Bartzelona, Madril eta Menorkatik pasa ostean eskainiko duzue kontzertua Elgoibarren.**

Bai, errodajea eginda ailegatuko gara Elgoibarrera, eta gogo handiarekin gainera. Estalpeko kontzertuak eskaini ostean aire libreko eszenatokietan, herriko plazetan eta, jotzeko irrikaz gaude. Beste era bateko kontzertuak izateaz aparte, formatuz aldatzea bizigarria da.

◆ **Zelako harrera izan dute disko berriko abestiek?**

Durangon eskaini genuen estreinako kontzertuan liluratuta laga gintuen publikoak. Abesti berriak joz hasi genuen emanaldia eta letra guztiak zekizkiten, nik neuk baino hobeto![barrez]. Hori luxu bat da guretzat. Are gehiago disko berriko soinuarekin arriskatu egin dugula jakinda. Oso pozik gaude disko berriak izan duen harrerarekin.

◆ **15. diskoa duzue. Ez dira talde asko izango kopuru horretara ailegatu direnak.**

Musika zure desioa dela konturatzen zarenean, musikak bizi zaituela dakizunean, kabroi baten moduan lan egitea da musikaren bidea hartzeko modu bakarra. Horixe da egiten duguna, gustatzen zaigunean lan egin, uneoro. Aurrekoaz gainera, musikaren eta pop kulturaren jarraitzaile sutsuak gara, eta etengabe xurgatzen ditugu berrikuntzak. Chuck Berry eta rockaren hastapenetatik hasi eta Arcak musika elektronikora ekarri duen ikuspegi berria bitartean dagoen esparru zabaletik edaten dugu.

◆ **Zer musika entzuten duzu?**

Era askotako musika entzuten dut. PJ Harveyren azken diskoak txundituta nauka. The Strokes taldea itzuli izanak ere asko poztu nau. Komertzialagoa den arren, Bruno Marsen hainbat gauza ere gogoko ditut. Eta entzuten jarraitzen dut Dylan edo Cohen. Eta, lehenago esan bezala, Arcak musika elektronikora ekarri dituen haize berriek harritu naute.

◆ **Nolakoak dira Doctor Deseoren zuzenekoak?**

Gauza berriak bizitzeko gogoaz igotzen gara oholtzara. Oso lagungarria izaten da zuzenekoetarako aldez aurretiko jarrera ona. Gero, musikaren, argiaren eta publikoaren arteko interakziotik sortzen dira istorio politenak, norberaren kontrolpetik kanpo daudenak maiz. Ez zait nire emanaldietako bideoak ikustea gustatzen, baina ikusi izan ditudanetan neu ere harrituta gelditu izan naiz eszenatoki gainean egiteko gai naizen gauzekin. Zuzeneko emanaldi batek, ona bada, ezin zaitzake epel laga; ez oholtza gainekoak eta gutxiago publikoa. Zuzenekoak bata bestearen oso antzerakoak diren edo errepikatzen diren sentsazioa dudan unean, lagatzeko unea izango da.

◆ **Nolakoa da Euskal Herriko publikoa?**

Ezagutzeko aukera izan dugun publikorik sutsuena mexikarra da, zalantzarik gabe. Errealismo magikoa han zergatik sortu zen konturatzen zara, fantasia eta errealitatea modu oso berezian nahasten baitituzte kontzertuetan. Eta euskal publikoari dagokionez, aurkakoa dioten topikoetatik aldenduz, beroa dela eta hunkitzeko gaitasun handia duela sumatzen diot nik oholtza gainetik. Eta uste dut ezaugarri berdinak ditugula beste esparru batzuetan ere, sexuportaeretan, esaterako.


Aukerak zabaltzera goaz
bildu festara!
elgoibar
ehbildu


SAHATZU
HARATEGIA
Santa Ana, 5
T943 742 048
JON ULAZIA
"SAHATZU"


Gorbea
JATETXEA
Santa Ana Kalea, 10 behea
943 254 232
TXIKI EGUNEKO menua
Entsalada mistoa
Txanpiñoi errebueltoa
Txahal gisatua
edo
Zapo buztana saltsan
Ogia eta postrea
18€
Ondo pasa jaiak!


IBA
RRE
NEA
okindegia
1890tik
San Bartolome, 30
Tel.: 680 724 060
Plaza txikitik ere badu sarrera!
ibarrenea@hotmail.es
ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN
EGINDAKOA
KONTSERBAK
ETA ARDOA
ONDO PASA JAIETAN!
IBARRENEA


Pintxoak ◆ Kafeak ◆ Ardoak
Ostegunetan Pintxo Music
Probatu ezazu gure Mojitoa jai hauetan!
Ondo pasa sanbartolomeak!
Orain arratsaldez ere izango gaituzu 18:00etatik aurrera!

elgoibar Ikastola
jai zoriontsuak!
www.elgoibarikastola.eus

GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API
Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA
ASAP AGENTE KOLABORATZAILE HOMOLOGATUA
San Frantzisko,51 behea T.943 744 467
Etxebizitza berriak Santa Klara, 11n
104.300€-tik aurrera (+ BEZ)




# Jaiak eta drogak eskutik helduta?

Zorionez ala zoritxarrez, alkohola eta bestelako drogak jaien ezinbesteko osagarria dira gehienentzat. Gehiengo horrek ez du pentsatzen alkoholik edo drogarik gabe festak onak izan daitezkeenik. Zertarako edaten da baina? Ohitura da arrazoi bat, jaiak izan ala ez lagun artean sarri joaten baita jendea tabernetara trago pare bat edatera. Bestalde, alkoholaren eraginez, norbere burua askeago sentitu eta normalean egingo ez lituzkeen gauzak egiteko gaitasuna ematen duen ustea izaten da. Bestelako drogek ere (kokaina, speeda, haxixa) jaietan zale asko dituzte.

Edan, erre, pastiletan hartu, sudurretik sartu... Baina ba al daki jendeak benetan zer den hartzen dutena? Alkoholarekin nahaste asko egiten da eta auskalo zer edaten den, baina beste drogak legez kanpokoak izanik are zailagoa da aurrez kontrol zehatzak egitea.

## Alkoholemia frogak

San Bartolome jaien egitarauaren baitan, alkoholaren eta beste drogen gehiegizko kontsumoari buruz sentsibilizatu, informatu eta arreta jartzeko kanpaina egingo da *Adingabekoak eta Alkohola* programaren barruan. Zapatutik domekarako gauean (abuztuaren 27tik 28ra) izango da, 00:00etik 03:00etara, Maalan, espresuki egokitutako stand batean.

Azken urteotan bezala alkohol tasaren frogak egiteko aukera emango zaie jaietan Elgoibarren dabiltzan eta interesa duten pertsona guztiei (duten adina dutela), beti ere beraien borondatez joanez gero. Iaz 272 pertsonek hartu zuten parte Sasoia SL-ren kanpainan.

Alkoholaren arrisku faktoreak murrizteko hartu beharreko jarrera arduratsuak sustatzen dituzte. “Gure helburua ez da debekatzea, hausnarketa egitera bultzatzea baizik. Baditugu txartel batzuk alkohola eta gidatzea legeak nola arautzen dituen azalduz; norbaitek gidatu behar badu alkoholimetroak banatzen ditugu; edo alkohol proban positibo eman eta gidatu arte zenbat denbora itxaron behar duten jakinarazten duten informazioa ere ematen dugu”, dio Sasoiako Ainhoa Lauzirikak. Gaztetxoei ez diete alkoholemia proba egiten, berez ezin dutelako edan, “baina haiekin lantzen dugu arriskuen murrizketa, esanez afaldu egin behar dutela, ez dutela alkohola beste droga batzuekin nahastu behar...”.

## Testing

Droga asko hartzen da jaietan, baina zer moduzko drogak dira? Drogen konposizioa aztertzeko Ai Laket! elkarteak *Testing* programa dauka abian. Tokian tokiko kontsumo guneen ingurura gerturatu ohi dira furgonetan eta Elgoibarren ere hala egingo dute. Han banatuko dituzte drogei buruzko informazioa ez ezik preserbatiboak, turutoak, kotoizko filtroak, seruma eta alkoholimetroak.

Bestalde, furgonetaren barruan laborategi mugikorra jarrita daukate han drogen analisi kuantitatiboak egin eta informazioa eman ahal izateko. Iaz gune hartan 140 laguni egin zitzaien harrera. Lagin batzuk bertan aztertu eta beste zenbait laborategira bidaltzen dituzte han sakonago ikertzeko.

Ai Laket!-eko Miren Ugarteren esanetan, “arriskua ez duen kontsumo bakarra egiten ez dena da. Baina etortzen direnek libre aukeratzen badute hartzea guk arriskua murrizteko pautak ematen dizkiegu”.

Gehien aztertu ohi dituzten drogak haxixa eta marihuana dira Ai Laket!-en esanetan, eta drogetan adulterazio asko egoten dela ere jakinarazi dute. Gehien bat anfetamina kafeinarekin nahasten da eta sustantzia ezezagunagoak ere erabiltzen dira. Jendea, festa guneetan, Ai Laket!-eko furgonetara zuzenean joaten da gehienetan, “are gehiago droga adulteratuta dagoela susmatuz gero. Gainera, aztertu ondoren jakinez gero substantzia onak ez diela furgonetan bertan botatzen dituzte, ez baitira ausartzen hartu eta eramatera, beraien osasuna arriskuan ez jartzeko”, dio Miren Ugartek.

Alkohola eta droga jaiekin lotuz gero neurrian egitea gomendatu dute, jakina, baita zalantzak argitzera Maalako informazio gunera joatea ere.

# Kirol argazki onenak

**Kirol Argazki Lehiaketa antolatu dute aurten ere Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak, Kirol Patronatuak eta Ongarri argazkilari taldeak. Atzo, hilak 22, banatu behar zituzten sariak, gero Kultur Etxeko erakusketa gelan erakusgai jartzeko. Abuztuaren 31ra arte ikusi ahal izango dira lehiako argazkiak. Aretoa egunero zabalduko dute, 18:30etik 20:30era. Bi orri hauetan ikus ditzakezue argazki irabazleak.**



Jose Luis Soto, *Herri kirolak*

Pedro Luis Ajuriaguerra, *La iglesia skate*







## SARIDUNAK:

**SARI OROKORRA:**

1. saria: Pedro Luis Ajuriagerra (Bilbo): *La iglesia skate (300 euro).*
2. saria: Jose Luis Soto (Zarautz): *Herri kirolak.*

**NERABEENTZAKO SARIA:**

1. saria: Haizea Sanchez (Elgoibar): *Paddle surf* (150 euro).
2. saria: Hutsik.

**GAZTEEN SARIA:**

1. saria: Sara Beristain (Elgoibar): *Yankee airlines* (300 euro).
2. saria: Ander Izagirre (Elgoibar):*Eutsi gogor* (200 euro)





Ander Izagirre, *Eutsi gogor*



Sara Beristain, *Yankee airlines*



Haizea Sanchez, *Paddle surf*



Igor Froilan, *WGA 2*

**HERRITARREN SARIA:** Igor Froilan: *WGA2* (200 euro).


Elgoibar Arreiturre BHI
Arregitorre 2
Tel.: 943 748 397
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net
Jai zoriontsuak!


Muruamendiaraz
GOZODENDA
www.muruamendiaraz.com
San bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345
Ondo pasa jaiak!


ETXEBERRIA tanatorioa
Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa
Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak
Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR
Telefonoak:
943 741 327 (24 orduz)
Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203
www.funerariaetxeberria.com

# Zer dira zuretzat sanbartolomeak?

**Batzuk parrandan, besteak lanean eta besteak bietatik egiten. Kantuan; banda eta txarangarekin; kanpotik jaioterrira etorriak; jaiak pastelekin gozatzen; jaien aitzakian batera eta bestera parrandazaleak autoan eramaten; zezenez arduratzen; Baserritarren Egunean sagardo botila eskuan; Gurutze Gorrikoak zaurituak edo gehiegi edateak kaltetu dituenak zaintzen; alkatea jaiak jai ekitaldi batetik bestera; brigadan; dantzan; adina muga izan gabe jai egiten; aurrez ekitaldiak antolatzen eta egunean bertan ondo atera daitezen zaintzen; eta aldarrikapenean. Bakoitza berean eta beretik sanbartolomeez ahal den neurrian gozatzeko gogoz, guztiak jairako prest.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

## ELORRI IRUSTA



Lagun, familia eta ingurukoekin ondo pasatzeko egunak. Herriari, sei egunez, kolorea ematen saiatzen gara bakoitzak bere aletxoa jarrita. Ni egun denak topera aprobetxatzen saiatzen naiz: bezperan txupinazoa jaurti eta txarangak barruak alaitzen dizkigunetik, jubilatuen egunean Andonik zezenak kamioian sartzen dituenera arte. Tartean geratzen dira San Bartolome Eguneko bazkaria eta ondorengo pilota partidua, Txiki Eguneko erromeriako dantzaldiak, Gazteen Eguneko bazkaria, jolasak eta abarrak, Baserritarren Egunean kale kantariekin egiten dugun kalejira (hemendik animatzen zaituztet kantura etortzeko!), eta zelan ez, gaua sartzen denean bai txosnetan, bai herriko tabernetan, gorputzari dantzan ematen dizkiogun astinduak! Disfrutatu dezagun denok elkarrekin, ondokoa errespetatu eta zainduz; guk egiten ditugu-eta handiak San Bartolome jaiak!

## DAVID GARRIDO



Bandako entseguarekin hasten dira. Azal erre eta irribarre argien artean. Askotan bezperaren bezpera ospatzen dugu. Hurrengo goizean txarangako hamarretakoa nagiak kentzeko. Kristoren sukaldariak ditugu, gainera! Urduri aurpegiak, bai sartu berrien artean eta bai ile gutxi dugunon artean. Plaza jendez gainezka. Azken animoak gure artean. *La Morena*-ren lehenengo hotsak. Herria aste betez alaitzeko gogoz. Urtero nire buruari bezperan esaten diot zainduko naizela hurrengo egunean bandako kontzertua daukadalako. Urtero goizeko dutxa hotza. Bandako kortzertuaz gozatu eta arrebaren urtebetetzea familiarekin ospatu. Festak musikaz blai dauden urteroko momentu ederrak dira. Eta Txiki Eguna… Txiki Egunaz zer esan… Txiki Egunak sentiarazten didana argitzeko 200 orrialdeko BARREN ale bat beharko nuke. Hurrengo baterako.

## EDU IRIONDO



Niretzat eta herrira etortzen garenontzat, San Bartolome jaiak –batez ere, Txiki Eguna– bizitza lehengotan dagoen lekura bueltatzeko aukera dira. Programa kontsultatu beharrik gabe, badakigulako sokamuturra, hamaiketakoa, txaranga, bazkari-merienda, tragoak, dantzak, txikitako lagunak… euren lekuan eta orduan egongo direla, denbora pasatu ez balitz bezala. Gainera, adin batera ailegatuta, joan egin diren lagunak eta ezagunak edozein bazterretan saltoka topatuko ditugulako bizipoza ematen diguten momentu gozoak dira. Sokamuturrean, gazte arduratsuren batek ikusi eta “kontuz, hor dago-eta zezena” esatean denboraren joanaz konturatzen bagara ere, *gaztekerietan* segitu nahi izaten dugu, lagunen seme-alaben aurpegietan norberarena ikusi nahian.

## MERTXE MURUAMENDIARAZ



Egun gogorrak izan dira, batik bat erretiroa hartu aurretik eta gaztetan zer esanik ez, lagunak jaietan eta ni lanean. Urte askoan gozo-dendan lan egin dut eta, batzuetan kalera irten arren etxera bueltatzeko eskatzen ziguten edo gauean irten eta goizean lan egitea gogorra zen. Orain jubilatuta nago eta laguntzen egoten naiz, baina lasaiago. Gozo denda bi egun aurrez zabaltzen dugu enkarguak jasotzeko eta badira opor aurretik pastelak eskatzen dituztenak ere. Goizetan, sokamuturra aurretik etortzen gara, bestela gero ezin izaten da sartu. Etxera erretiratu aurretik, guk denda zabaldu baino lehen, parranda bukatzeko, batzuek etortzen dira pastel bila (gehienak bonbak) eta gaupasa egindakoek batzutan guztiak eramaten dituzte. Hori batik bat obradorea kalean bertan geneukanean gehiago sumatzen genuen. Pertsianekin gora eta behera ibiltzen gara eta sokamuturra bukatutakoan ere asko etortzen dira eta pixka bat berandutuz gero gastatutakoan etortzen dira bat edo beste.

## FERNANDO MORENO




Taxista lanetan lau urtez ari naiz, beraz, jaiak lana dira niretzat. Parrandan ari den jendeak bezala gaupasa egiten dut nik, baina lanean. Taxira etortzen diren gazte gehienak ezagunak dira, jaietan ez ezik beste noizbait ere eraman izan ditudalako eta jaietan ondo portatzen dira. Noizbait deitu behar izan diet udaltzainei arazoren batengatik, baina hori salbuespenen bat izan da. Garai bateko larunbat haietatik hona asko aldatu da kontua eta San Bartolome jaiak ere jaitsi egin direla uste dut, beste herri askotako giroa bezala, besteak beste taberna gutxiago daudelako. Jaiak orain lana izan arren gogoan dut ni jaietan ibiltzen nintzen sasoia eta Txiki Eguna nuen gustukoen.

## AGUSTIN MUGERTZA



Batzuek San Ferminetan sentitzen duten poza nik sanbartolomeetan sentitzen dut. Baina sokamuturrera zezenekin etorri behar izaten dudanez, ardura izaten dut gauzak nola irtengo diren, inork minik hartuko ote duen, animaliek ondo funtzionatuko duten… Nekea sentitu arren, gustura egiten dut, batik bat gauzak ondo irteten direnean eta jendearekin harremanetan egotean. Baserritik txapliguak entzun eta bururatu izan zait kalera jaitsi, terraza batean eseri eta gin-tonic batzuk gustura hartzea, baina ez da bateragarria hurrengo egunean zezenak jaistearekin. Baserritarren Eguna, bai, kalean pasatzen dut lagunekin edo familian, baina iluntzean beti erretiratzeko. Noizbait adarren bat apurtu zaio zezenen bati, errekara ere jausi zen bat, nik meniskoa sokamuturrean hautsi nuen eta sokamutil bat ere zauritu zen. Beraz, jaiak etortzen direnean gustura eta amaitutakoan ere, baina hurrengo urtean berriz etortzeko desiratzen.

## ITZIAR IRAZABALBEITIA



Sanbartolomeak beti izan dira bereziak niretzat, eta are bereziagoak azken urteetan herrian bizi ez naizenetik. Bezperako eta Txiki Eguneko juergak beti gustatu izan zaizkit eta Baserritarren Egunean, sagardo lehiaketan, nire Sallobente auzoko lagunekin, niki berdea jantzi eta sagardoa banatzea beti bizi izan dut ilusio handiarekin. Aurten ere hor izango gara!

## AMELIA ALMEIDA



Lana. Boluntario aritzen naiz Gurutze Gorrian, taberna batean ere lan egin izan dut, eta autopistan lan egiten dudanez han ez dira herriko jaiak kontuan hartzen. Hala ere, moldatzen naiz lan egin eta juerga bat edo bi egiteko ere. Ez dut egun zehatzik parrandarako, dena den nahiago ditut ustez ezer ez dagoela eta herriko jendea bakarrik irteten dela diruditen egun horiek, juerga politak egin daitezkeelako. Jaiak Gurutze Gorritik bizi izatea tokatu izan zait eta zezenak harrapatu dituen jende asko ikusi dut. Bestalde, lehen Osakidetzako anbulantziaz Gurutze Gorria arduratzen zen eta 03:00-04:00 aldean mozkortutako jendea edo borroketan zaurititutakoak ere etortzen ziren gurera eta sendatu edo zaindu behar izaten genituen.

## ANE BEITIA



Aurtengo jaiak ere, iaz bezala, ilusio handiz hartuko ditut. Adin guztietako herritarrei zuzendutako jarduerak antolatu ditugu eta alkate naizen aldetik, obligazio asko izango ditut, baina guztietan gogotsu eta gustura ibiliko naizen zalantzarik ez daukat. Gaztetan gaueko giroa nuen gogoko gehiago, baina urteekin eta erantzukizun desberdinak tarteko, orain eguneko kaleko giroarekin geratzen naiz. Egunez zein gauez, giro baketsuan eta errespetuan oinarritutako sanbartolomeak izatea da garrantzitsuena, ondo pasatzea eta errespetua uztargarriak baitira. Adin guztiek, sexu guztiek, herritarrek zein kanpotarrek… Elgoibarren guztientzako tokia dugu ondo pasatzeko.

## ANGEL GARATE



Jendeak ondo pasatzeko egunak. Nik lana egin behar izan dut, lehen udaltzain eta orain Brigadan. Gazteagoa nintzenean parrandak egindakoa naiz, baina orain ezin dut modu berean gozatu. Pare bat egunetan arratsaldez libre izaten dut, Txiki Egunean, adibidez, eta jendea parrandan ikusteak gu ere girotzen gaitu eta noizbait gu ere sartzen gara jaian. Hurrengo egunean lan egin behar dudanez, ordea, aprobetxatzen dut, baina beti ere neurrian. Bestalde, lankideok ere jai giroa sortzen dugu gure artean dena ez dadin lan hutsa izan eta sanbartolomeei jai ukitua emateko.

## ANE ASTIGARRA



Abuztuaren 22ko dantzako entsegua. Bezperan, armairuan gordetako zapi gorria eta kasaka bilatzea, kanpoan egon diren lagunekin elkartzea, txupinazoa, bazkaria… San Bartolome Eguneko alarma, lo falta eta burukomina, buruko zapia jantzi eta plazaratzea, txistua eta dantza, familiarekin bazkaltzea, erraldoi eta buruhandien kalejira. Txiki Egunean sokamuturra eta txorizoa, lagunak, ardoz zikintzea eta txaranga, arratsaldeko bazkaria, Maalako erromeria eta dantza, txosnak… Gazteen Egunean koloredun kamiseta eta bazkari herrikoia, jolasak, kontzertuak… Baserritarren egunean burukomina, feria eta jendea, lagunarteko afaria eta txosnako txanda, tabernak, txosnak eta… Jubilatuen eta umeen eguneko burukomina, kafea, eszenatokia prestatzea eta dantza solte txapelketa, txistua eta trikitia, sari banaketa eta bukaera. Ingurukoekin elkartu eta ospatzeko aitzakia perfektua dira niretzat jaiak.

## JESUS ETXEBERRIA



San Bartolomeak inon dauden jairik onenak dira niretzat, denetariko gauzak egoten direlako. Bezperako Salbetik hasi eta San Bartolome Eguna bera da niretzat gustukoena meza nagusia, ondorengo dantzak eta bandaren kontzertua. Pilota partidak ere gogoko ditut, baita feria eguna ere oso ederra izaten da. Zer esanik ez domekan egiten dugun erretiratuon bazkaria. Guretzat egun berezia izanik jendea zain egoten da. Nik 80 urte ditut eta ezin dut gazteen pare ibili Txiki Egunean orain ibiltzen diren bezala. Baina oro har jaietan egoten den jai-giroa bera gustatzen zait. Nik uste dut jaietan momentu bakoitza bizi behar dela eta norberak jarri behar duela jaietako anbientea, ipiniz gero jaiak politak dira, ipini ezean, ordea, aspergarriak.

## ARANTZA BERISTAIN



Niretzat jaiak? lana eta disfrutatzea aldi berean. Batzuetan zaila izaten da, baina ahalik eta ondoen bateratzen saiatzen naiz, ume giroan, lagun giroan… Elgoibartarra naizenez gero, Txiki Eguna da niretzat bereziena, sokamuturra, eguerdiko txaranga eta ondoren ahal denera arte. Goizeko sokamuturrak ere oso gustuko ditut, baina hori bai, badaezpada urrutitik. Txupinazoari dagokionez, gure txupinazoa, jaien hasieran izan beharrean, abuztuaren 28an, jaien amaierarekin batera izango da, gure lana bukatzen denean. Ondo pasa jaiak!!!

## JON GARATE



Gaztetatik, festa eta parrandaz gain, sanbartolomeek beti izan dute niretzat aldarrikapen kutsua. Nire kasuan, lehenengo, gazte mugimenduan, eta gero batik bat amnistiaren aldeko batzordean ibili izan naiz, hain seinalatuak diren egunetan arrazoi politikoengatik falta zaizkigunen eskubideak aldarrikatzeko. Maalako Gune Askean txosnetan egindako txandetan, Zazpiki irratiak izandako tokiaz ere dezente gogoratzen naiz. Gaur egun, ordea, jaietan lan egiten dut, eta parrandara irtenez gero gehiegi aldrebesten gara; beraz, hobe zaintzea lan egin behar bada.


Belaustegi Baserria
JATETXEA
San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com
Sanbartolomeetan gozatu Belaustegin!
Ondo pasa jaietan!
Belaustegi Ba
Sanbartolomeetako menu berezia egongo da!


NOVARA
urkotronik
Hainbeste itxarondako festak iritsi dira.
Ondo pasa!
Ostalaritzan eta Vending-ean adituak.
1983 geroztik.
Banatzaile ofiziala:
www.urkotronik.com | 943 203 112
AZKOYEN.






**Eire Vila**

**Mikel Olaizola**



San Bartolome, Frantzisko, Pedro, Iñaxio, Roke, Antolin, Joan… santuen izenak gure kale ertzetan. Sotanarekin, Pedro Migel Urruzuno eta Aita Agirre, bata hemen eta ekialde urrunean gotzain kolono bestea. Gabriel Krutzelaegi eta Iñigez Karkizaokoak ere bake usain handiegirik ez zuten eramango beren espedizioetan. Bernardo Ezenarro eta Eulogio Estarta ekintzaile haundi, baina Bertolt Brechti hitzak kenduta, beraiek bakarrik ote? Antonio Arrillaga mediku ilustre, eta Juan Mugertza atleta, gorputza ere balioan jarriz. Eta nola ez, Pedro Muguruza; hazten ikusi nauen kaleari, *avenidari*, izena eman ziona, erregimenaren arkitektua, talentu artistikoa krimenaren zerbitzura.

Horiek ditugu erreferente: santuak, apaizak, medikuak, kirolariak, militarrak eta frankistak. Denak pitilinak, *por supuesto*. Denak ordenaren partaide, *gente de bien*. Horiek gara gu ere, garena oihu egiten digute kale ertzek.

Abuztuaren 25ean Errosario kalea, gure atzekale ilun hori, bihurtuko bada ere festaren erdigune, urtearen joanean gu gehiago garelako San Bartolome. Gehiago garelako zuzen, arrazoi eta lan; ardo, pasio eta askatasun baino. Edo (ni-a besteongan proiektatzeko, moralizatzeko, sermoneatzeko daukadan joera horri planto eginda) naizelako.

Jaiak ia ate bat diren libre izaten saiatzeko, edo gutxienez ez horren Bartolo. Ez izateko egun bakarreko mozkor eta urte osoko mozorro.

*"Horiek ditugu erreferente: santuak, apaizak, medikuak, kirolariak, militarrak eta frankistak. Denak pitilinak, por supuesto"*

Tel.: 943 741 011
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Jai zoriontsuak!
IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
Gaindi ezazu gida-baimena lortzeko azterketa teorikoa 17 urte egin aurretik
Zatoz informazio eske!

SEGUR-arno
ASEGURUAK
PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA
Ondo pasa jaietan!
Deba kalea 2, behea · 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com · www.segurarno.com

IRIONDO KIROLAK
Ondo pasa jaietan!
San Frantzisko, 37
Tel.: 943 740 956
ELGOIBAR

ARAMBURU
BITXIDENDA
Ondo pasa jaietan!
San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

Imprenta Arrillaga
Ondo pasa jaiak!
Inprimaketa: Offset, Digitalean
Ezkontza gonbidapenak, Hileta oroigarriak, Bisita txartelak, Kartelak / etiketak, e.a.
Fotokopiak: Koloretan, Txuri-beltzean
Trenbide Kalea, 13 - behea (Frente parking Estacion Tren)
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagasl@outlook.com

Maria Urizar
Ileapaindegia
Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK
Jai zoriontsuak!
Komunitateen, ugazaben aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.
Iñaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351
Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ARMUETA
HARATEGIA
ANGEL ARRIZABALAGA
San Bartolome, 16 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 640 - 630 225 428


Jatekoa prestatzen dugu enkarguz, lagunarteko otorduetarako, zein etxerako. Piper beteak, albondigak, okela gisatua, etab...
Etxean hazitako txahal-okela.




zubacor

ONDO PASA SAN BARTOLOME JAIAK

www.zubacor.com - zubacor@zubacor.com
Tel.: 943 740 844 - Faxa: 943 742 666




jai alai
kutxabank

Meka
Lanbide Eskola
Jai zoriontsuak,
ondo pasatu eta indartsu etorri irailean lanera!

# Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

## AROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak
Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

**IMAR AROZTEGIA**
Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

**BIENA S.L. AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

Aroztegia · Carpintería
**ASIMA**
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Albitxuri industrigunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

## ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l. elektrizitatea**
Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356
iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD AZPELETA**
San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA, ELEKTRIZITATEA**
Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad PEROSANZ**
www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com
Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
Faxa: 943 206 045
20600 EIBAR
Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 behea - Elgoibar
Tel.: 605 705 204
Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurrarekin ere lan egiten dugu.

Igeltseritza
**CAMILO ALVAREZ**
Jardiñeta, 25 behea
EIBAR
Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

## ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA ITURGINTZA**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ONGI Iturgintza**
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

FONTANERÍA
**Ibámar**
ITURGINTZA
San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE ITURGINTZA**
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

**ZUBIZARRETA instalazioak**
Ubitarte plaza, 5 behea
Elgoibar
943 740 789
650 586 144

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA

**BIOK dekorazioa**
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida